ELGOIBAR - 668. zenb. - XVI urtea - 2008-09-26

# B
BARREN

# Asier Saiz, erreka berreskuratzailea






BABESLEAK GIPUZKOA zurekin, aurrera GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA kutxa

# Erosotasunaren zirkulua

Lagun on batek hau irakurtzen duenean ideia berari lapurtu diodala pentsatuko du, eta, hein handi batean hala bada ere, berarekin hainbeste aldiz hitz egindakoa hemen konpartitu nahiko nuke guztiokin.

Gizakia animalia den aldetik bere ingurura ezin hobeto egokitzen saiatzen da, nahiz eta animaliak ez bezala, azkenaldian ingurua beregana egokitzen duen. Gure eguneroko ekintzetan erosotasuna dugu gustuko, egiten dugun hori erraz eta buruhauste gutxirekin egitea, alegia. Era horretara, gure “erosotasunaren zirkulua” eratzen dugu. Bertan seguru gaude, dena kontrolpean dugu, ez dugu zertaz kezkaturik.

Halere, badira momentuak zirkulu horretatik ateratzen garenak. Batzutan nahita, emozio berrien peskizan, eta bestetan, halabeharrez. Lan berri bat dela, talde berri baten partaide egitean, beste herri berri batera bizitzera joatean, afizio berri bat ezagutzean…era hortako momentu berrietan, gure zirkulotik kanpo gaude. Urduritasunak jaten gaitu; ondo egin beharrak loa kentzen digu; gure buruarekiko exijentzia maila asko igotzen da…

Baina halako batean egoera berri horrek gure erosotasunaren zirkulu berri eta handiago bat osatzen du. Berriz ere lasaitzen gara eta gure zirkuluan barrena lasai barreiatzen ditugu emozioak.

Zirkuluaren barruan eroso sentitzen garen arren, ez al zaigu sarritan klaustrofobia sartzen? Ez al dugu zirkulua handitu beharra sentitzen? Erosotasunean bizitzea samurra den arren, zenbat eta zirkulu handiagoa izan egoera gehiagotara egokitzen ikasten dugulakoan nago, nahiz eta jakin hortarako une ez hain samurrak pasatu behar direla. Zirkuluaren kanpoan gauden uneetan gure barne tentsioak nabarmenki gora egiten duen arren, aldi berean hortik pasatzea bilatzen dugu. Azken finean, gizakiak gara.



Sare Gurrutxaga

**“Zirkuluaren barruan eroso sentitu arren, ez al zaigu sarritan klaustrofobia sartzen?”**

*“Nire txanda” atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetan: 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com*

**BIDALI ZURE OPORRETAKO ARGAZKIAK**
*elgoibarren.net@elgoibarkoizarra.com*

**Partehartzaile guztien artean *Martinea nekazal turismoan* astebukaera bat zozketatuko da.**

**MARTINEA I-II-III LANDA-ETXEA**
**2tik 16 pertsonentzat.**
**Nafarroa (Donostiatik 50 km-ra)**
**Tel.: 610 613 157**
***www.terra.es/personal5/martinea***



**www.elgoiBARREN.net**

***Egin klik eta ikusiko duzu***

ELGOIBARKO IZARRA KULTUR ELKARTEA




Hamazortzi urterekin Palentziara joan zen Asier Saiz Rojo mendi injineru ikasketak egitera. Geroztik handik zehar bizi da 30 urteko elgoibartar hau, lana han topatu zuen-eta, baina hilean pare bat aldiz herrira etortzen da familiari bisita egitera. Asierrek Palentziako errekak ikertu ditu, eta berak egindako proiektu bati esker 200.000 euroko saria eskuratu du Palentziako Diputazioak. Diru horrekin hango bost erreka berreskuratuko dituzte, eta elgoibartarra izango da lanen buru. Datorren hilabetean hango urtxakurrei buruzko dibulgazio liburua emango du argitara: "La nutria en la provincia de Palencia". Izan ere, urtxakurren azterketaren bidez, Palentziako ibai eta erreken osasun egoera zen den jakin ahal izan du.

**Palentziako Diputazioak nolatan lortu du Ingurumen Ministerioaren saria?**
Hidraulika irakasle izan naiz bi urtean Palentziako Unibertsitatean. Kasualitatez, gure arloan, sei irakasletatik bi elgoibartarrak ginen: Javier Sanz Ronda, Santa Ana kalekoa, eta biok. Bera orain Burgosen bizi da eta familia Elgoibarren dauka, nik bezala. Han ibai-errestaurazioari buruzko klaseak ematen nituela, Palentziako El Cerrato eskualdeko urtxakurren inguruko ikerketa egin nuen lehenengo. Palentziako Diputazioak interes handia zuen urtxakurren inguruan. Ecologistas en Accion taldearekin elkarlanean, liburu bat idazten hasi nintzen, “La nutria en la provincia de Palencia” izenekoa. Diputazioari nik egindako proiektua asko gustatu zitzaion, eta ingurumen Ministerioak antolatutako lehiaketara aurkeztu zuen. Nazioko lehen saria eman zioten: Diputazioak 200.000 euro eskuratu ditu proiektua bera burutzeko.
**Zeri buruzkoa da saritutako proiektua?**
Proiektuak erreka-bide batzuk berreskuratu nahi ditu El Cerrato eskualdean, Palentziako hego-ekialdean. Erreken 50-70 kilometrorengan edukiko luke eragina, gune horietako urtxakurrek habitat hobea izateko eta beste ibai tarte batzuk berriz kolonizatu ditzaten.

> **“Euskal Herrian ibai gehienak mugatuta daude”**

**Proiektu horretan zein da zure zeregina?**
Diputazioak, Ingurumen Ministerioak eta Espainiako Probintzien eta Udalerrien Federazioak hitzarmena sinatuko dute laster, eta lan horien zuzendari izendatuko naute. Urte bi izango ditugu proiektua gauzatzeko.
**Lanen nondik norakoak azalduko dizkiguzu?**
Batez ere zuhaitzak eta zuhaixkak landatuko ditugu erreka ondoan, erriberara egokitutako espezieen bidez. Desbroze selektiboak ere egingo ditugu, landareok errazago hazteko. Eta gero, dispositibo artifizial batzuk eraikiko ditugu, urtxakurrek habiak bertan izateko: gertuko erreketan modu egonkorrean bizi direnek erabili ahal izateko moduan jarriko ditugu, berriz ere erreka horiek kolonizatzeko.
**Inguru horretan urtxakur asko daude, ala?**
Oso leku lehorra da; eta errekak, oso txikiak. Jendeak ez zuen uste han urtxakurrik egongo zenik, ingurumen aldetik oso animalia exigentea da-eta. Atentzioa eman zuen urtxakur-populazioa bazegoela esan nuenean. Izan ere, udan erreka horiek ez dute urik eta urtxakurrak joan egiten dira. Neguan, berriz, ur gehiago datorrenean, elikagaia topatzen dute, arraintxo, anfibio edota karramarroei esker, eta bueltatu egiten dira.
**Urtxakurrek onurarik ekartzen diote errekari?**
Biodibertsitatea bilatzen duelako saritu zuten proiektua. Erreka-bidea orekan egoteko balio du urtxakurrak. Urtxakurrak badaude, erreka ez dago uste bezain gaizki: karramarroak ere badirela esan nahi du horrek, karramarroak jaten dituelako; anfibioak eta arraintxoak ere badirela esan nahi du; azken horiek landareak jaten dituzte. Azken batean, oreka ekologikoa dagoela esan nahi du. Palentziako urtxakurren liburuari buruz jende askok esan ahal dit ea zertarako idazten dudan, aspergarria dela, inork ez duela irakurriko. Baina Palentziako erreka guztien analisia ageri da, errekak nola dauden esateko, kasu honetan indikadore baten bitartez: urtxakurra.
**Orain errekak hobeto zaintzen ditugu?**
Joera positiboa ikusten ari da. Lana ez da behar bezain beste eta ondo egin, baina azken hogei urteotako joeran aldaketa igartzen da. Dibulgazio eta obra aldetik, gauzak aldatzen ari dira. Gainera, errekak errestauratzeko, administrazioek gero eta proiektu gehiago kaleratzen dituzte. Ez da erabat nahikoa, oraindik ere egin behar ez diren gauza batzuk egiten direlako, baina joera aldatuz doa.
**Zer beste neurri hartu beharko litzateke errekek hobera egiteko?**
Behar bezala baloratu behar dira ibaiak, uste baino ekosistema konplexuagoak dira-eta. Erreka ez da ura pasatzen den bide hutsa: luzetara egitura konplexua du, baita zabaletara ere. Erreka-bidearen eta ertzen artean lotura dago. Konektatuta daudenez, guneen artean erlazioa dago. Ibaiaren fauna-aniztasuna horren isla da: arrainak, erriberako animaliak, landareak… Beraz, horren balioa hartu behar da kontuan, orain arte egin ez bada ere. Orain arte, alkantarilla izan da ibaia, eta isurketak egiteko erabili izan dugu. Errekenganako sentsibilitatea eta ezagutza behar ditugu. Obra zibilek gero eta gehiago dute: orain 30-40 urteko isurketa zuzenak ez dira egiten gaur egun, eta depuradorak ezartzen ari dira. Horrez gain, fauna berreskuratzeko proiektuak oso interesgarriak dira.

> **“Polita izango litzateke Deba ibaian arrantza egitea”**

**Zer nota jarriko zenioke Deba ibaiari?**
Zaila da… Umetan, Pilarren ikasten nuen eta egunero lau aldiz gurutzatzen nuen ibaia: oso kutsatuta ikusten zen. Orain, depuradorarekin hobetzen joan dela esan daiteke. Euskal Herrian errekek arazo handiak dituzte, komunikazio bide garrantzitsuak direlako. Ibai gehienak erabat mugatuta daude. Gurean, alde batean Elgoibar dago eta bestean errepidea; eta ezin da gauza handirik egin, lur falta dela-eta. Nik uste dut hobetu egin dela Deba, kutsadura maila ezagutzen ez badut ere. Isurketa aldetik behintzat hobera egin du. Euskal Herriko azpieguturen arazoa azaltzeko adibidetzat erabiltzen dut Deba ibaia.
**Orduan Deba modu naturalean berreskuratzea zailagoa da…**
Eta gune urbanoetan integratzea ere. Beste leku batzuetan egiten ari dira, pasealeku, parke eta abarren bidez, baita heziketa eta dibulgaziorako ere (umeak ibaira gerturatu ahal izatea, esaterako). Baina hori hemen oso zaila da. Errestaurazioak egiteko, administrazioek oso lur antolamendu ona egin behar dute. Ingurumen arloko arazo asko lurralde antolamendu eskasetik datoz. Deban arazoak dauzkagunez, hasieran, gune altuenetan errestaurazio naturalak egin beharko lirateke eta lanak hobeto ordenatu eta proiektatu. Depuradorak ere aspalditik egon beharko luke martxan. Baina ibaiaren gertutasuna herriarekin faltan botatzen dut. Azken batean, inoiz ez dugu zapaldu ibaia, beti zubietatik ikusi izan dugu. Kutsadura gutxiago izatean, polita litzateke Deban arrantza egitea.

---

**Oier Narbaiza**

Amalurra

# Hileroko feriak sekulako garrantzia eduki du Elgoibarren

Azokak jendea elkartzeko gune garrantzitsuak ziren lehen, Koldo Lizarraldek egindako ikerketaren arabera. Kalearen eta baserriaren arteko hartu-emana egoten zen azokei esker. Baserritarrek produktuak saltzeaz gain, beste gai batzuk eskuratzeko aprobetxatzen zuten azoka. Era berean, kaletarrek baserriko produktuak erosten zituzten. Horren inguruan, harreman sozialak, apustuak edo pilota partiduak izaten ziren.

Baserri eta kalearen arteko hartu-eman hori estuagoa zen antzina. Elgoibarko etxe askotan, behealdean, kortak izaten zituzten. Behi eta ardiak iluntzean ateratzen zituzten bazkatzera. Txerriak jai egunetan solte lagatzen zituzten. Horrek guztiak tirabirak sortzen zituen eta kortak edukitzeko debekuren bat ere egon zen indarrean.



### Berrehun urte baino gehiago

Hala ere, 1782. urtean hileko azken zapatuan azoka egiteko baimena eskatu zuen Elgoibarko Udalak. Azken batean, Elgoibar ondo komunikatutako herria da eta inguruetan ez zen horrelako azokarik egiten. 1783an azoka egiteko baimena eman zioten.

Beharbada Errosario kalean egiten zituzten lehenengo azokak, Feria kalea esaten zitzaion-eta.Azken zapatuko azokak sekulako garrantzia izan du Elgoibarren, ganadu salerosketa dela-eta, inguruetako baserritar ugari elkartu izan direlako eta makineria eskuratzeko aukera ematen zuelako. Herrian giro berezia izaten zen: idi-probak egiten ziren Santa Klara inguruan. Baserriaren gainbeherarekin batera azoka apaltzen joan bada ere, formula berrien bidez aurrera bizirik jarraitzea lortuko du.

## Sasoian sasoikoa

### Sagarra

Fruitu bat geurea bada, hori sagarra da. Sagarrondoak hemengo klimara ondo egokitu izan dira. Ondo gordetzen den fruitua bada ere, orain batzen da. Era guztietako sagar barietateak daude, baina Gipuzkoan ezagunena Errezil sagarra dugu. Sagar aukera zabala dago: gezak, gozoak, mikatzak eta gaziak. Bibliak sagarra leku txarrean laga arren, herritarrek osasuntsu egotearekin lotu izan dute beti. Kaukaso ingurutik datorrela diote batzuek. Erromatar eta arabiarrek ekarri zuten gurera.

Lurrak sasoi honetan produktu pila bat ematen ditu: madaria, irasagarra, piperrak, onddoak, ziza horiak, intxaurra , urra, basarana, pikua, gaztaina, muxika, babarruna, kalabazina, kalabaza, tipula, patata, tomatea, pipermina, leka, espinaka, berakatza, brokolia, kukulua, letxuga, aza, azalorea, eskarola, apioa, azelga, tipulina, porrua, erremolatxa…



# Hileko azken azoka

## Feria biziberritzen





## Baserriko produktuak erosteko eta herri kirolak ikusteko aukera ere izango dute elgoibartarrek bihar, zapatua

Gipuzkoan ganadua saltzeko feriari modu serioan eusten dion herri bakarra da Elgoibar. Baina baserriaren azken urteotako gainbeheren eraginez, makal antzean dabil azken urteotan. Hori dela eta, azoka biziberritzeko indarrak batu dituzte Debemenek, Udalak eta Lagun Artea elkarteak: hileko azken zapatuan baserriko hainbat produktu eskuratzeko aukera ere dute orain elgoibartarrek. Era berean, jendea erakartzeko, herri kirolak izango dira.

Betiko moduan ganadua 11:00ak ingurururako helduko da eta 17:00etara arte egongo da erakusgai. Makineria ere salgai izango da. Hala ere, goizean, 9:30etik 13:00era arte sei baserrik eurek ekoiztutako produktuak jarriko dituzte saltzen Nafarroa Plazan.

### Trontza zahar txapelketa

Aiastia-San Migel auzoko ardi txakur lehiaketa arratsaldean izango denez, herri kirolak eguerdian eskainiko dituzte, Kultur Etxe aurrean, 12:30etatik aurrera

Elgoibarko trontza zahar txapelketa antolatu dute biharko azokarako. Mendaro, Lastur, Baliarrain eta Arratiatik etorritako kirolariek bertan parte hartuko dutela iragarri dute.

Horrez gain, aizkoran Elgoibarko bi gazte ikusteko aukera izango da bihar: Edu Arrona eta Apraiz.

### Hirugarren saiakera

Ekaineko azken zapatuan egin zen azoka biziberritzearen aldeko apustua. Uztailean ere beste saiakera bat egin zuten. Antolatzaileek uste dute jendeak pixkanaka feria barneratuko duela.

“Pentsatu genuen feria jantzi egin behar zela”, azaldu du Mausitxa baserriko Iñaki Ansolak. Horregatik izango dira herri kirolak, eta, aurrerago, gai konkretu bati buruzko erakusketa berezia egitea. Horrela jendeari zapatuetan baserriko produktuak erosteko aukera emango diote eta bertako baserritarrek euren produktuak saldu ahal izango dituzte. Asmoa ez da feria handi eta ikusgarria egitea, praktikoa baizik, salerosketarako balio izango duena. Azkenean baserritarrek ekoiztutako produktuak kalean saltzeko balio izatea nahi dute.

Antolatzaileen arabera, azoka biziberritzeko guztion inplikazioa behar-beharrezkoa da eta jendea animatu nahi dute. “Zapatuetan Elgoibarren feria egotea egun pasarako aukera ere izan daiteke”, uste du Iñaki Ansolak.

**Honako hauek jarriko dute postua bihar, zapatua, Nafarroa plazan:**

- **Lizundia Txabola baserria (Elgoibar):** baserriko hainbat produktu. Eguenetan plazara etortzen da.
- **Zabaleta baserria (Elgoibar):** barazkiak. Eguenetan plazara etortzen da.
- **Arrasketa baserria (Lastur):** barazkiak. Eguenetan plazara etortzen da.
- **Eguen Txiki baserria (Elgoibar):** barazkiak. Eguenetan plazara etortzen da.
- **Mausitxa baserria (Elgoibar):** ardi gazta.
- **Txillarre baserria (Elgoibar):** produktu ekologikoak. Plazan denda dauka.

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: ***barren@elgoibarkoizarra.com***.

**AHT Ez ordaindu**

2007.urteko urritik desobedientzia kanpaina bat martxan dago (*http://www.blogak.com/ahtezordaindu/*). Renfe eta Euskotren AHTren onuradun izango direnez, trenez bidaiatzean tiketa ordaintzeari muzin egiteko deialdia egin genuen.

Deialdia jarraipen zabala edukitzen ari da eta hainbat erabiltzaile desobedientziari batu zaizkio.Orain, ordea, Eusko Jaurlaritzaren isunak iristen hasi dira.

Isun bat iristen bazaizu, hau da egin behar duzuna:

Abokatuak eginiko errekurtso orria bete (*www.ahtgelditu.org* orrian, eskuinean behean dago lotura *http://www.box.net/shared/nanhtako40* helbidera) eta notifikazioa jaso duzunetik 15 eguneko epearen barruan bidali errekurtsoa Eusko Jaurlaritzara.

Edo gurekin harremanetan jarri. Nahi izanez gero gure emailera idatz dezakezu *ahtezelgoibar@gmail.com* edo *ahtezelgoibar@euskalerria.org* helbideetan.

Orain da inoiz baino garrantzitsuagoa AHT ez ordaintzea!!!

**AHT Ez Elgoibar**

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inizialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: “Ikastolako irakasleak”, esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inizialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.



## ESKERTZA

2008ko irailaren 14ean hil zen ***Maria Arrillaga Arrillaga*** andrearen sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



**Barren**

**BARREN**ek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12
Faxa: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea: ELGOIBARKO IZARRA KULTUR ELKARTEA

ZUZENDARIA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Asier Orbea, Oier Narbaiza PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA Zaloa Arnaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Oihana Tarragual, Ibai Portu, Ane Odria, Maialen Olazabal, Andres Alberdi, Anjel Ugarteburu, Abel Irizar, Alberto Agirreazaldegi, Sugar Etxaniz, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Eva Garcia, Miriam Garcia, Jesus Mari Makazaga, Juanito Gorostiza. INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.750 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855





Alberto Agirreazaldegi

Astebururuan burutik kendu ezinda nabil, Abel. Hedabide guztietan irakurri ditut Arnaldok –Otegik, nork bestela!- egindako adierazpenak. Ez dut esango zer esan duen. Honezkero denon ahotan dabil hori. Mezua baino, mezuaren iturria izan da inportantea, alegia, Arnaldo bera. Baina ez dut Arnaldoz idatzi nahi. Bakarrik esango dut asko pozten naizela bera kalean ikusteaz. Ez mezua, ez iturria, mezularia ekarri nahi dut gogora.

## “Ikusi dugu tokiko hedabide baten elkarrizketa zein urruti irits daitekeen ”

Elkarrizketa BARREN digitalean irakurri nuen lehen aldiz ostegunean. Ostiralean paperezko edizioan ikusteko aukera izan nuen. Txukun portzierto. Lan polita BARRENeko kazetariak eginikoa. Eta larunbatean zabaldu zuten beste hedabide gehienek mundu zabalera. Hedabide horiek mezularia ere aipatzen zuten: *elgoibarren.net* Askotan hitz egin dugu, Abel, tokiko hedabideen garrantziaz eta indarraz. Gehienetan euskararen sustapenaren ikuspuntutik. Oraingoan ikusi dugu tokiko hedabide baten elkarrizketa zein urruti irits daitekeen, mezua eta iturria garrantzitsuak direnean. Herri txiki bateko aldizkari batek emandako elkarrizketa mundu globalera zabaltzen ikusi dugu. Espainiar Estatuko hedabide indartsuenetan oihartzuna izan du herri txiki batean sortutako berriak. Internetek ere izan du, noski, horretan errua.

Hala ere, hau guztia ez da sortu kasualitatez. Gaiak eta pertsonaiak izan du hemen pisua. Arnaldok BARRENi ez balio eskaini elkarrizketa ez litzateke ezer gertatuko. Honek adierazten du beste gai eta pertsonaia garrantzitsuek aukeratuko balute gertuko hedabidea, mundu zabalera berdin iritsiko liratekeela komunikabide xume bati esker. Zorionak BARRENi egon behar den lekuan egoteagatik eta mila esker Arnaldori BARREn aukeratzeagatik.



Abel Irizar

*Elgoibarren.net*-ek ondo asmatu du, bai. Eta Arnaldorena ere keinu polita izan da. Arretaz jarraitu dut nik ere elkarrizketa, eta, gaiari errematea emateko, Arnaldoren adierazpenak informatikoki aztertzea bururatu zait, Estatuko poliziek eta epaileek egingo luketen bezala… Ausardiaz, epaileen azalean sartu naiz, Alberto, eta Arnaldok esandakoak aztertu ditut hitzez hitz. Interneteko tresna informatiko batek testu batean gehien errepikatutako hitzak kontatu eta kontzeptu nagusien mapa sortzen du. Horrela ikus dezaket zerk kezkatzen duen gehien Arnaldo momentu honetan. Mapan nabarmenduta dauden hitzak: aukera, azkenean, eman, estatuak, euskal, ezker, gara, gatazka, guk, gure, herri, izan, joko, kartzelan, negoziazio, politikoa, preso, proiektu, prozesu, zaila.

## “Bide luzea opa diot bake prozesuan bigarren zatiari”

Adierazgarria, ezta? Hortxe dago mezuaren mamia. Bestalde, kontzeptu nagusiak multzokatuta, bost multzo atera zaizkit:

- Kartzela, presoak, gatazka politiko, konponbide, estatua
- Aukera eman, ezker, abertzale, independentista
- Euskal, herri, europa, proiektu
- Negoziazio prozesua, erabakitzeko eskubidea, demokratikoa, akordioa
- EAJ-PNV

Ez dut topatu delitu-zantzurik Arnaldoren hitzetan, baina ziur naiz epaileren batek lortuko lukeela, nahiko balu, horretara iristea. Epailearen azaletik, ondorio bat: politika penitentziarioak kale egin du Arnaldorekin, orain 15 hilabete zituen asmo berak izaten segitzen baitu.Eta herritar modura, desio bat: herri hau luzaroan sufritzen ari den gatazka konpontzeak dauka orain lehentasuna. Horretan bat nator Arnaldorekin. Bide luzea opa diot bake prozesuaren bigarren zatiari. Gu ikustekoak izan gaitezela, Alberto, eta BARREN notizia esklusiban emateko gauza izan dadila.

Elgoibarko Udala
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
DANOBAT
kutxa
GOITI GRUPO DANOBAT

Lapurretak ugaritu direla-eta, etxeko atea giltzaz ondo ixteko gomendatu du Ertzaintzak.

# Ostu egingo dizuten beldurrik badaukazu?



**Juan Linares**

**70 urte, jubilatua**

Bai. Gure etxean sartu ziren behin lapurrak eta semea jipoitu zuten. Ordutik neurriak hartu ditugu: leihoan barroteak jarri eta atea blindatu dugu. Hala ere, beldur pixkat badaukagu.



**Mª Dolores Carasa**

**78 urte, etxekoandrea**

Bai, beldur handia daukat. Askotan saiatu dira lapurrak nire etxean sartzen, eta autoan ere egin didate lapurretan. Bakarrik bizi naiz, eta atea beti giltzarekin ixten dut barrutik.



**Miguel Esnaola**

**55 urte, jubilatua**

Ez gehiegi, baina apur bat bai, gauza asko entzuten dira-eta. Kalera irten edo oporretan joaten garenean beti ixten dugu atea giltzarekin, baina barruan gaudenean ez.



**Mª Jose Miguel**

**34 urte, etxekoandrea**

Ez, beldurrik ez. Etxe batean bizi gara, eta txakurra daukagu. Ohera joaterakoan ateak eta leihoak ondo ixten ditugu badaezpada, baina momentuz lasai bizi gara.

## 10eko TXIKIAN



## JUSTA LOPEZ

*Etxekoandrea*

**1. Alkatea bazina, zer egingo zenuke di-da batean?**
Eguenetako merkadilloa herrira ekarri. Orain Eibarrera joaten gara, eta dirua han gastatzen dugu. Herriari bizitza eman behar zaio.

**2. Herriko txokorik gustukoena?**
Alde Zaharra, Plaza Txikia eta ingurune hori guztia gustatzen zait gehien.

**3. Azken aldian egin diren obretatik, zein iruditzen zaizu astakeriarik handiena?**
Santa Ana kaleko etxebizitzak. Oso zatarrak geratu dira, balkoi eta leiho txikiak dituzte eta, gainera, ilunak dira. Akaso, obra guztia amaitutakoan hobeto geratuko da.

**4. Herri euskalduna iruditzen zaizu Elgoibar?**
Bai. Nik pena daukat ez dudalako ikasi, baina dagoeneko berandu da. Nire alabak hemen jaiotakoak dira, baina ez nituen ikastolara bidali. Gaizki egin nuen, damututa nago. Orain ez dakite euskaraz.

**5. Aukeratu egun bat, lagun bat gure herrira gonbidatzeko...**
Astean zehar edozein egunetan ekarriko nuke lagunen bat herrira.

**6. Ondo komunikatuta dago gure herria?**
Hobetu daiteke. Biblora joateko, adibidez, autobusa falta da.

**7. Zer falta zaio Elgoibarri? Eta zer dauka soberan?**
Jantzi denda gutxi dago nire edadeko emakumeentzat. Nik ez dut niretzako arroparik aurkitzen herrian, eta kanpora joan behar izaten naiz. Soberan botiloia dago. Gazteek ondo pasatzearen alde nago, baina ingurunea eta ingurukoak errespetatuz.

**8. Ahal izango bazenu joango zinateke beste herriren batera bizi izatera?**
Urte asko daramatzat hemen, eta gustura nago. Daukadan guztia hemen egin dut.

**9. Bainatuko gara inoiz Deba ibaian?**
Ez dut uste, zaila izango da.

**10. Ipini nota gure herriari, 0tik 10era bitartean...**
5. Asko bajatu da Elgoibar azken urteotan.

**Ermuaran-Sallobenterako bidean argiztapen gutxi dago:** "Egunero joaten gara Sallobentera paseatzera, eta askotan berandutu egiten zaigu. Udan berandu iluntzen du, baina orain eguna motzagoa da, eta ordua aldatzen dutenean zer esanik ez. Ibartxiki baserritik aurrera ez dago argirik, eta errepidea ere nahiko ilun egoten da. Elgoibarren paseatzeko leku gutxi dago. Gehienak Sallobentera joaten gara, eta uste dut beharrezkoa dela paseatzeko baldintza egokiak jartzea".





**Patinetearekin ibiltzeko lekuak falta dira herrian:** "San Rokeko bide gorrian debekatuta dago patinetearekin ibiltzea, eta ez daukagu beste lekurik. Urasandiko parkea horretarako prestatuta dago, baina ez dute zaintzen eta hondatuta dago. Zulo mordoa ditu eta ezin gara bertan ibili. Herriko hainbat aldapatan ibiltzen gara, baina arriskutsua da, toki guztietan autoak dabiltzalako. Udalari eskatu nahi diogu patinetearekin ibiltzeko lekuren bat. Mila esker".

**Madalako bidegurutzean semaforoa apurtuta dago:** "Madalako bidegurutzean semaforoa hondatuta dago. Ez dakit Udalak hori konpontzeko asmorik izango duen ala ez, baina inguru horretan bizi garenok faltan botatzen dugu. Hamar minutu pasa nituen eguerdi batean bidea gurutzatzeko zain. Autoak ez dira geratzen, eta ez dute bide bazterrean zain dagoena errespetatzen. Minutu bat ere ez daukate oinezkoei oparitzeko. Semaforoa ahalik eta azkarren konpontzeko eskatu nahi nuke".



Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
*barren@elgoibarkoizarra.com* / 943-74 41 12



# Pedro Muguruza etorbideko espaloia ezinduentzako egokituko du Udalak

## Guztira, 54 metroko luzera eta bi metroko zabalera izango ditu igobide berriak



Pedro Muguruza etorbideko 11 eta 21 zenbakien arteko espaloi zatiko eskailerek ez dute irisgarritasun araudia betetzen, eta, auzotarren aspaldiko eskariari kasu eginez, ezinduentzako igobide bat jarriko dute egungo eskaileren alboan. Udalak Aikia enpresari eman dio lana egiteko baimena, eta urrian edo azaroan hasiko dituzte obrak. Ordutik hasita, bi hilabeteko epea izango dute egin beharrekoa amaitzeko. Igobideak 54 metroko luzera izango du, eta bi metroko zabalera. Obraren aurrekontua 138.316 eurokoa da.

### Eskailerak ez dituzte kenduko

Injelan enpresak eginiko ikerketak eskailerak beharrezkoak direla ondorioztatzen du, inguruan dauden portal, garaje eta komertzioen sarrerak altuera ezberdinetan eraiki zituztelako bere garaian. Hortaz, eskailera zaharren alboan eraikiko dute igobidea. Ricardo Garate Hirigintza zinegotziaren esanetan, "sortuko den espaloi berriak lau metroko zabalera edukiko du, orain daukanaren zabalera bikoitza, alegia". Bestalde, obren ondorioz, bi aparkaleku gutxiago izango dira gune horretan. Izan ere, autoak ilaran aparkatzeko moduan jarriko dituzte lurreko marrak eta ez orain dauden moduan, baterian.

## Merkatariak herritarrengana gerturatu ziren Txankakuaren ferian





Herriko dendari eta merkatariek Plaza Handira atera zituzten euren produktuak pasa den zapatuan, Txankakuaren ferian, zortzigarren urtez jarraian. Elkarteko kideen produktuak herritarrei modu berezian aurkeztea da Txankakuak antolatzen duen feriaren asmo nagusienetakoa. Eta aldi berean, herriko giroa pizten lagunduko duen jaia egitea ere bai. Feriak harrera ona izan duela uste du Nerea Erkiaga Txankakuako kideak, eta horrek aurrera jarraitzeko indarra ematen diela azpimarratu zuen. Herritarren partehartzea eskertzeko, 600 euro zozketatu zituzten, eta irabazle bakoitzak ehun euroko erosketa txeke bana jaso zuen. Hauek dira aurtengo sarituak: Miren Larrañaga, Aitor Fernandez de Jauregi, Gorka Azpilikueta, Nora Isasti, Maripaz Berdonces eta Laura Peralta.

## Lekua N-634 errepidea



N-634 errepidean dagoen arriskua salatu dute Altzolako Zubibai elkarteko kideek. Errepide aldamenean dauden etxebizitzetatik kalera irteteak beldurra ematen duela adierazi dute, autoek ez dutelako 50 km/orduko abiadura errespetatzen. Ingurune horretan jendea bizi da. Umeak, nagusiak eta baita ezinduak ere ingurune horretan ibili beharra izaten dutela adierazi dute. Espaloi bat eta segurtasun neurriak eskatzen dituzte.

## Berbia Lapurretak

Azken hilabeteotan Debabarreneko etxeetan izandako lapurreten kopurua igo egin dela adierazi du Ertzaintzak. Urte honetan, Ermua, Eibar, Elgoibar, Mendaro, Deba eta Mutrikuko udalerrietan 43 lapurreta izan direla jakinarazi dute. Hori dela eta, Ertzaintzak aholku batzuk eman ditu, etxeetako segurtasun neurriak areagotzeko. Garrantzitsuena atea giltzarekin ixtea da.

## Irudia Innobasque eta Ikaslan hitzarmena

Iñaki Kondek, Ikaslanen izenean (Lanbide Heziketako Ikastetxe Publikoen Elkartea) eta Innobasquek (Berrikuntzaren Euskal Agentzia) lankidetza hitzarmena sinatu zuten IMHn. Horren bidez, bi erakundeek EAEn berrikuntzaren garapena sustatu eta bultzatuko dute, gizarte eta teknologia alorretan ekintzailetasun izaera sustatzeko. Innobasqueren xede nagusienetako bat EAE berrikuntza arloan nazioarteko erreferente bihurtzea da. Bestalde, Ikaslanek Lanbide Heziketako ikastetxeen garapenean lagunduko du, eskaintza zabalagoa izan dadin.




### Gorren eguna Bergaran

Iraileko azken domekan Pertsona Gorren Nazioarteko Eguna izango da. Aurten, "Eskubideak? bai denontzat" lemapean, Bergaran izango da eskualdeko gorren topaketa, irailaren 28an, goizeko 10:00etatik aurrera. Sentsibilizazio jardunaldi horren helburua gorrek dituzten eskubideak aldarrikatu eta euren kultura jendaurrean azaltzea da. Bergarako San Martin Agirre Plazan izango da jardunaldia, eta hainbat ekitaldi izango dira egun osoan zehar: puzgarriak, informazio mahaiak, zeinu hizkuntzari buruzko tailerrak, kontzentrazioa, agiriaren irakurketa, kale antzerkia eta kirol jarduerak.

### Odol ateraldiak izango dira gaur, barixakua

Gipuzkoako Odol bankua gaur etorriko da Elgoibarrera. Arratsaldeko 18:30ean eta 20:30ean izango dira odol ateraldiak.

### Alderdi Egunera joateko autobusa

Datorren domekan, irailak 28. Alderdi Eguna ospatuko da Forondako zelaian, eta Elgoibarko EAJ-PNVk bertara joateko autobusa jarriko du. Santa Ana kaleko erretondatik irtengo da goizeko 9:00etan. Interesatuek 943 53 05 30 edo 675 71 84 66 telefonoetara deitu dezakete izena eman edo informazioa eskuratzeko.

### Gida Komertziala 09

BARREN astekaria 2009ko Gida Komertziala prestatzen hasi da. Elgoibar eta Mendaroko enpresa, taberna, elkarte eta denda guztien telefonoak bilduko dira gida horretan, eta ondoren, BARREN astekariarekin etxe guztietan banatuko da. Enpresa berriren bat sortu dutenek, edota euren negozioan aldaketaren bat izan dutenek, deitu dezatela mesedez BARREN astekarira, datuak berritzeko. 943 74 37 04 (Leire)

TXIKI BARREN

# LAURA HERNANDEZ

## 10 URTE

**Udazkenean sartu berri gara. Zein urtaro duzu gustukoen?**
Udaberria, mendiak berde-berde jartzen dira eta eguzkia irteten da.
**Zer egin duzu udako oporretan?**
Salamanca, Caceres, Portugal eta Lekeition ibili gara. Oso ondo pasatu dugu oporretan.
**Eskolan hastea gogorra egin zaizu?**
Bai, goizean goiz jaikitzea ez zait gustatzen. Oporretan hobeto egoten da.
**Zein ikasgai gustatzen zaizu gehien?**
Plastika. Eskulanak egitea eta marraztea asko gustatzen zait.
**Eta gutxien?**
Matematika, zenbakiekin ez naiz oso ondo moldatzen.
**Zertarako aprobetxatzen duzu jolasordua?**
Lagunekin jolasteko, eta batzutan bokadiloa jateko ere bai.
**Ikasle fina zara?**
Baietz uste dut. Etxeko lanak eginda ekartzen ditut, ia beti, eta nota nahiko onak ateratzen ditut. Batzutan suspentsoren bat ere bai.
**Egiten duzu kirolik?**
Ez.
**Zenbat urte izan nahiko zenituzke?**
15, nahi dudana egiteko. Orain gurasoek esaten duten guztia egin behar izaten dut.
**Famatua izatea gustatuko litzaizuke?**
Ez, nahiago dut Elgoibarren lasai-lasai bizi.
**Non egongo zara hamar urte barru?**
Ikasketak amaituta eta lanean egotea espero dut.



## Jaia



### Pilar ikastetxearen eguna urriaren 12an

Urtero bezala, urriaren 12an ospatuko dute Pilar ikastetxeko ikasle, irakasle eta gurasoek Pilarika eguna. Aste horretan zehar, ikasleen arteko futbol eta pilota txapelketak jokatuko dituzte, eta urriaren 12an izango dira finalak. Horrez gain, beste hainbat jolas eta joko izango dira.

Pilarreko Ama Birjinaren egunerako ere hainbat ekitaldi antolatu dituzte, eta herritar guztiak gonbidatu nahi dituzte ekintzetan parte hartzera.

Eguerdiko 12:00etan meza izango da ikastetxeko gimnasioan eta ondoren, 13:00etan, guraso batzordeak luntxa eskainiko du.



# LURREAN 50 EURO AURKITUZ GERO, ZER EGINGO ZENUKE?

**Jon Gisasola**
**6 urte**
Nintendo DS bat erosteko aurreztuko nuke. Dagoeneko 40 euro dauzkat itsulapikoan.





**Jagoba Manchado**
**6 urte**
PSPa erosteko erabiliko nuke. Garestia da, eta dirua behar dut. Banketxean 400 euro ditut!

**Aitana Ortega**
**7 urte**
Amari opari bat erosiko nioke. Loreak gustuko ditu, eta lore sorta bat oparituko nioke.





**Zorione Cuesta**
**6 urte**
Lurretik jaso eta itsulapikoan sartuko nituzke. Nintendo bat erosteko aurreztu nahi dut.

**Paul Larios**
**7 urte**
Poliziari emango nioke, diruaren jabea aurkitu eta berari bueltatzeko.





**Noemi Araujo**
**7 urte**
Niretzako gordeko nuke diru guztia, eta Nintendo bat erosiko nuke. Asko gustatzen zait.

## Arbelean

### “Irudimendeko hiria" antzezlana urrian

Udaleko Kultura Sailak antolatuta, "Irudimendeko hiria" ikuskizuna eskainiko du Gorakada taldeak urriaren 26an. Bostetik bederatzira urtera arteko umeentzako txotxongilo ikuskizuna izango da. Hiriak mugimenduan daude une oro, etengabean. Beste leku erabat ezberdinetatik etorritako gero eta jende gehiago erakartzen dute horiek. Eta jatorri ezberdineko jende horrekin, beste kultura eta bizitzeko modu batzuk sortzen dira. Irudimendeko hiri honetan oso toki anitzetako ipuin tradizionalak elkartu eta biziko dira. Ikuskizuna 16:30ean hasiko da, eta sarrerak Herriko Antzokiko lehiatilan salduko dituzte egunean bertan.



## Gure berbak

### Aditza (27): Subjuntibua II

Gaurkuan subjuntibuaren adibide gehixago ekarriko doguz, bi kontu azaltzeko: bata da aditzaren partizipiua erabiltzen dala (sarTU zeiñ), euskera batuan ez bezela:

- *Eta abioiak, ba, juten dittuk, pilotua kantsau ezteixan, hankak libre, ez automobillian balitz bezela. [ez deixan]*
- *Baraurik juten giñuazen etxetikan, eta bezperan arpegixa garbittuta gaiñera, ur tantarik sartu etzeiñ, pekatua zala ta. [ez ze(d)iñ]*
- *Eta beti indiziua, beti indiziuak, kalenturarik ezteiñ egon. [ez deiñ]*
- *–Zer moduz umiak? –Ondo. –Hori dok, osasuna behintzat euki deixela!*

Bestia da subjuntibua baiño gehixago erabiltzen dala ahozko jardunian bestelako aditz-forma bat, aditz jokatugabia: jokatuak baiño errezagua izan! -*TZEKO* soill batekin ordezkatzen dittugu (helburuzko erabilleran) aditz-forma mordua. Hona, aditza egokittuta (aditz jokatugabia jarritta), goiko hiru adibide:

- *Eta abioiak, ba, juten dittuk, pilotua ez kantsatzeko, hankak libre, ez automobillian balitz bezela.*
- *Baraurik juten giñuazen etxetikan, eta bezperan arpegixa garbittuta geiñera, ur tantarik ez sartzeko, pekatua zala ta.*
- *Eta beti indiziua, beti indiziuak, kalenturarik ez egoteko.*

Jesus Mari Makazaga

## Erretratu zaharra

### 1995

Aste honetako argazkia Pedro Ezkurrak laga digu. 1995. urtean egin zuten irteera batean ateratako argazkia da. Pedrok irteera eta txangoak antolatzeko ohitura handia zeukan. Lagun artean joaten ziren batera eta bestera: Errioxara, Gasteizera, Biarritzera, Lurdesera... Gaurko erretratua Laredon ateratakoa da. Kantabria aldera joan ziren egun horretan, eta bertako hainbat herri bisitatu ondoren, Islan egin zuten bazkaria, itsasora begira. Egun ederra pasatu zuten.

Argazkian hainbat koadrilatako elgoibartarrak ageri dira, eta ezin izan ditugu izen guztiak jarri. Hala ere, norberak bere burua ezagutuko duelakoan gaude.



## ESKERTZA



2008ko irailaren 17an hil zen, 37 urte zituela, *Carlos Ruiz Ruiz* gaztearen oroimenez meza izango da, urriak 4, arratsaldeko 20:15etan Elgoibarko Sigmako Elizan.
Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.






AEK euskaltegia
Plaza Txikia, 3
Tel.: 943 74 13 32
elgoibar@aek.org

# BAZATOZ?




Udal Euskaltegia
Nafarroa Plaza, 2
Tel.: 943 74 27 31
elgoi.euskal@udal.gipuzkoa.net

# ¿VIENES?

AEK euskaltegia | Udal euskaltegia | ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkartea | Udalaren Euskara batzordea

# eta TERTULIETARA?

943 74 17 46 (Amaia)

# Arrakasta handia izan zuen motorren kontzentrazioak

Motorren kontzentrazioa izan zen joan zen asteburuan, eta eguraldi onari esker, sekulako arrakasta izan zuen ekitaldiak. 300 motor baino gehiago bildu ziren Plaza Handian, eta ikusleek ere ez zuten hutsik egin. 92 kilometroko ibilaldia egin ondoren, Sigmako aparkalekuan egin zuten bazkaria. 500 lagun bildu ziren Carlos Mugerzak prestatuako paella jateko, eta antolatzaileen esanetan “oso ona zegoen”. Egun biribila izan zen motorzaleentzat. **Argazki gehiago:** *www.elgoibarren.net*











## Gazte txartelari buruzko hitzarmena sinatu dute Udalak eta Jaurlaritzak

Elgoibarko Udalak eta Eusko Jaurlaritzak gazte txartelari buruzko hitzarmena sinatu dute. Gazteei ondasunak lortzeko erraztasunak eman eta euren bizi kalitatea hobetu nahi duen ekimena da gazte txartela. Hitzarmen horri esker, gazte txartela daukaten elgoibartarrek hainbat abantaila izango dituzte urriaren 1etik aurrera: Udaleko Gazteria Sailak antolatzen dituen ikastaro, irteera eta ekitaldi guztietan %20ko deskontua izango dute; eta Kultura Sailak antolatutako ikuskizun eszenikoetan (dantza, antzerkia, kontzertuak… ) 8,50 euro ordaindu beharrean, 6 ordainduko dituzte, eta zinea, 4,50 euro ordaindu beharrean, 4. Gazte txartela EAEn bizi diren 14 urtetik 25 urtera bitarteko gazteek eskuratu dezakete. Informazio gehiago: Gazte Informazio Gunean.

## 2009ko egutegiaren argazki lehiaketan parte hartzeko epea

Elgoibarko Udalak gogorarazi nahi du oraindik zabalik dagoela 2009 urteko egutegirako argazkiak aukeratzeko lehiaketan parte hartzeko epea. Argazkiak aurkezteko azken eguna urriaren 1a, eguaztena, izango da. Lehiaketa Elgoibarko Udalak antolatu du Ongarri argazkilari elkartearen laguntzaz eta edozein zaletuk parte hartu dezake.

Gaia Elgoibar da, eta parte hartzaile bakoitzak hiru argazki aurkeztu ahal izango ditu gehienez. Hamabi argazki aukeratuko dituzte guztira, eta saritu bakoitzak 50 euro jasoko ditu. Informazio gehiago 943 744 366 telefonoan.

# San Migel jaiak ospatuko dituzte asteburuan Aiastia auzoan

## Gazteen egunarekin hasiko dira jaiak gaur, barixakua

Aiastiarrek San Migel jaiak ospatuko dituzte gaurtik hasita datorren astelehenera arte. Gazteen egunak irekiko ditu jaiak arratsaldeko 18:30ean kanpai jotzearekin. Gauean gazte afaria izango da, ondoren disko festa, eta goizaldean striptease saioa.

Zapatuan ardi txakur txapelketa izango da ekitaldi nagusia. Euskal Herriko arraza libreko txapelketa jokatuko da arratsaldeko 17:00etan. Bertan zazpi artzainek hartuko dute parte euren txakurrekin. Horien artean Jose Antonio Arrillaga aiastiarra eta Lagun txakurra izango dira. Gauean Haritz dantza taldearen erakustaldia izango da, ondoren erromeria, eta goizaldean bolo txapelketa.



### Idi demak, domekan

Domekan, irailak 28, San Migeleko korrika igoera izango da goizean. Arratsaldean, berriz, idi demak izango dira protagonista. Jaiak astelehenean amaituko dira, San Migel egunean. Meza nagusia, pilota partiduak eta auzotarren afaria izango dira, besteak beste.

# Irudi txikiak egin zituzten Altzolako zeramika erakustaldian



Zubibai elkarteak antolatuta, zeramika erakustaldia izan zen domekan, hilak 21, Altzolan. Eguraldiak lagunduta, jende asko gerturatu zen bertara, umeak batez ere. Angel Gil eskultoreak lagunduta, lurrezko figura txikiak egin zituzten bertaratu zirenek, eta gustura pasatu zuten domeka goiza. Eskultoreak berak ere figura asko egin zituen, eta ikusleei oparitu zizkien. Zubibai elkarteari sorgin bat eman zion.

### Kiribilkako saioak

Kiribilka egitasmoaren arduradunen arabera, euria egiten duen barixakuetan Kultur Etxeko sotoan izango dira saioak. Kiribil barraskiloari gutxi falta zaio denboraldia amaitu eta Elgoibarko umeei agur esateko. Gaur, irailak 26, beste saio bat izango da 17:30ean eta urriaren 10ean izango da azkena. Urriaren 3an, bestalde, Ane Monna, Oskola eta Karramarroi Antzerki Taldeak eskainia “Ino Ino Ino badator bonbardino” emanaldia izango da Herriko Antzokian, arratsaldeko 18:30ean.

### Esperientzia Eskola

Debabarreneko Esperientzia Eskolan izena emateko epea irekita dago urriaren 23ra arte. 50 urtetik gorako pertsonentzako ikastaroak eskaintzen dituzte bertan. Besteak beste, gizarte harremanak eta komunikaziorako trebetasunak, eskainiko dituzte. Informazio gehiago 695 788 936 telefonoan.

# San Migeleko korrika igoeran 60 antxintxikari inguru espero dituzte

## Partehartzaileek ia sei kilometro egin beharko dituzte aldapan gora

San Migel jaien egitarauaren barruan, San Migelerako Korrika Igoeraren bigarren edizioa jokatuko da datorren domekan, irailak 28. Irteera eguerdiko 12:00etan izango da Plaza Handian, eta nahi duen edonork hartu ahal izango du parte.



### Iaz 47 partehartzaile

Iazkoa izan zen San Migeleko korrika igoeraren lehenengo saiakera, eta 47 lagunek hartu zuten parte. Antolatzaileak oso pozik geratu ziren ekitaldiak izandako arrakastarekin, eta partaidetza marka hori hobetu nahi dute: “Aurten 60 bat korrikalari izan daitezkeela uste dugu”, adierazi dute.

Partehartzaileek ia sei kilometroko ibilbidea egin beharko dute aldapan gora antxintxika Plaza Handitik Aiastia-San Migeleraino. Gainditu beharreko denbora Unai Bengoak iaz ezarritako 21 minutu eta 22 segundoak dira. Itziartarraren atzetik Jose Antonio Soto mendaroarra sailkatu zen, eta lehen elgoibartarra Jon Revert izan zen, 22:02 denborarekin. Lehen emakumezkoa Ane Mendia soraluzetarra izan zen, 27:52 denborarekin.



# Sanlo Eskubaloi taldeak 11 talderekin hasiko du denboraldia

Guztira 160 jokalari izango ditu aurten klubak



Eskubaloi denboraldia urriaren 5ean hasiko da. Sanlo Eskubaloi taldeak 11 ekipo izango ditu aurten: zazpi neskenak eta lau talde mutilenak. Guztira 160 jokalari izango ditu Sanlok, eta gainera, alebin mailako eskubaloi eskola jarri dute martxan. Bertan 35 mutilek hartuko dute parte. Domeketan izango dituzte entrenamenduak, eta hilean behin partiduren bat jokatuko dute. Eskola horren arduraduna Luisan Ojanbarrena bizkaitarra da, Euskadiko infantil eta kadete mailako mutilen selekzionatzailea. Denboraldi honetan Elgoibarren jardungo du entrenatzaile lanetan eta bera izango da infantil eta kadete mailako entrenatzaileen koordinadorea.

### Entrenatzaile ikastaroa

Sanlok antolatuta, PDJ entrenatzaile ikastaroa hasi zen asteburuan, eta hamasei lagunek hartu dute parte. Asteburkaera honetan egingo dute ikastaroaren bigarren zatia.

### IMHko tenis pista

IMHko tenis pista martitzen eta eguaztenetan 40-15 tenis elkarteak erabiliko du ikastaroak eskaintzeko. Beraz, arratsaldeko 18:00etatik 22:00etara ezin izango da erabili.

### Futboleko entrenamendu teknikoak

CD Elgoibarrek entrenamendu teknikoak eskainiko ditu 1998an jaiotako neska eta mutilentzako. Entrenamenduak urriaren 5ean hasiko dira.

## AGENDA

**PILOTA** (Ikastolan)

Barixakua, 26

21:15 Lagunak – Añorga (2. senior)

22:00 Lagunak – Aurrera (1. senior)

**ARETO FUTBOLA** (Kiroldegian)

Zapatua, 27

15:45 Kenci – Astraburuko (Nazional B)

Domeka, 28

9:00 Xagua – Oiartzun

**FUTBOLA** (Mintxetan)

Zapatua, 27

10:30 Elgoibar – Eibar (Inf. Txiki)

12:15 Elgoibar – Soraluze (Jub.)

16:30 Elgoibar – Lagun Onak (Erreg.)

Domeka, 28

12:15 Elgoibar – Amaikak Bat (Inf)

**ESKUBALOIA** (Kiroldegian)

Zapatua, 27

10:00 Ikus – Oñati (Kad. nesk)

11:30 Cometel – Oñati (Jub. nesk)

13:00 Casa Astigarraga – Zarautz (Inf. nesk)

17:30 Aterpe – Zarautz (Inf. nesk)

18:30 Lili – Zarautz (Inf. nesk)

Domeka, 28

10:30 Eskubaloi eskolakoak (Aleb. mut)

12:00 Alkorta – Aloña Mendi (Sen. mut)



## ESKERTZA

2008ko irailaren 15ean hil zen *Isidoro Leon Antequera* jaunaren sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



## LANA

### ESKAERA

- Elgoibarko gizona, edozein lanerako prest. ☎ 661 225 149
- 30 urteko mutila, garraio lanetarako prest. C gida-baimena badut. ☎ 660 806 008
- Emakumezko arduratsua, gaixoak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. ☎ 943 74 03 65
- Emakume gaztea, umeak edo nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako prest. ☎ 660 289 049
- Emakumea, nagusiak zaintzeko prest. Esperientziaduna. Erreferentzia eta papelekin. ☎ 686 521 598
- LH, DBH, Batxilergo eta zikloetako klase partikularrak ematen dira. ☎ 653 717 972
- Neska, umeak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ 660 441 505
- Emakume arduratsua, gauez nagusiak zaintzeko prest. ☎ 650 034 445
- Neska gaztea, arratsaldez umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Esperientziaduna. ☎ 676 876 408
- Neska, sukaldari laguntzaile edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 678 939 382
- Mutila eskaintzen da konpainia egiteko. ☎ 689 144 723 / 663 159 751
- Mutila, goizetan, gauetan edo asteburuetan edozein lan egiteko prest. ☎ 630 252 859
- Gizon arduratsua eta langile fina, edozein lan egiteko prest. Edozein ordutan deitu. ☎ 627 276 995
- Neska, lan egiteko prest (esperientzia garbiketa lanetan eta zaharrak zaintzen). ☎ 616 465 940
- Neska, lan egiteko gogo handiarekin. Kotxea eta gida baimena ditut. ☎ 669 154 143

### ESKAINTZA

- Emakume euskalduna behar da etxeko lanak egin eta umea zaintzeko. ☎ 652 76 18 81
- Jatetxerako sukaldaria eta kamareroa behar dira. ☎ 943 74 31 96
- Jatetxerako kamarerоa behar da. ☎ 625 467 634
- Zerbitzaria behar da Elgoibarko taberna batean zapatuetan lan egiteko. ☎ 679 276 164
- Umea zaintzeko neska edo emakumea behar da. Goizez, orduka lan egiteko. Hilaren 13an lan eskaintzara deitu zutenek, mesedez deitu berriro. Telefonoan izandako arazo baten ondorioz dei guztiak galdu baitira. ☎ 647 890 377
- Zerbitzaria behar da. ☎ 669 644 632

## ETXEBIZITZA

### SALMENTA

- Buhardila salgai Altzolan. 50.000 euro. ☎ 943 74 34 92 / 625 708 042
- Etxea salgai Urasandin. 3 logela, igogailua, balkoiak, oso eguzkitsua. Dena kanpoaldera. ☎ 669 167 457
- Etxebizitza salgai San Antolinen. Dena kanpora begira baita komuna ere. Argitsua eta eguzkitsua. Gas naturala sartuta. Trasteroduna. Etxe osoa berriztaturik: komuna, sukaldea, ateak, leihoak... ☎ 655 722 681

### ALOKAIRUA

- Hiru logelako etxea hartuko nuke alokairuan. ☎ 696 246 962
- Etxea alokatuko nuke Elgoibarren. Premiazkoa. ☎ 664 616 681
- Etxea alokatzen da Granadan, Albaicin auzoan. Informazio gehiago: *www.casasolea.com*
- Etxea alokatzen da Elgoibarren. Altzariekin. ☎ 636 233 175
- Etxea alokatzen da Mendaron. ☎ 658 379 393

## MOTORRA

- Hyundai Accent autoa salgai. 1999ko urrikoa, 113.000 km. Egoera onean. 1.500 euro. ☎ 943 53 12 77

## GARAJEAK

- Bi pisuko garajea salgai Urasandin. ☎ 943 74 23 44
- Garajea alokatzen da San Roke 5ean. ☎ 943 74 14 36

## BESTELAKOAK

- Altzariak, etxeko tresna elektrikoak, gortinak eta ohe arropak behar dira. ☎ 676 444 171

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak hiru astetan agertuko dira BARRENen eta astero *barren.iragarkilaburrak.com* atarian. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta *15 euro* eta alokairua *10 euro*. Autoak *10 euro*. Eta bestelakoak *5 euro*. Eguazten eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

Ingelesa, frantsesa eta alemana
Ordutegi bereziak!
o Talde murriztuak mailaka.
o Komunikazio klaseak.
o 2 egun astean. (astelehena eta asteazkena edo asteartea eta osteguna.)
o 3 ordu astean. (14:30etatik 16etara edo 10:30etatik 12etara)
Kurtso hasiera Urriak 13an eta bukaera Ekainak 30an
Industry Language Services
Informazioa, matrikula eta ordutegiak
943 744 040
www.ils.es
ILS
INDUSTRY LANGUAGE SERVICES



• Zorionak, **Joane,** atzo bi urtetxo egin zenituelako. Muxu handi bat famili guztiaren partez.



• Zorionak, **prexioxa**! Lorena, Maitane, Elena eta Aitorren partez. Muxu handi bat.



• Zorionak, **aitatxo,** zure nesken partez. Muxu handi bat.



• Zorionak, **sorgintxo,** abuztuan 4 urte egin zenituelako. Muxu handi bat gurasoen partez.



• Zorionak, **Nerea** sei urte egin dituzulako. Gurasoen eta bereziki, Ainhoaren partez.



• Zorionak, **Danel,** gaur bi urte egin dituzulako. Familiakoen eta bereziki, Julenen partez.



• Zorionak, **Enara,** irailaren 29an 5 urte egingo dituzulako. Gurasoen eta familiakoen partez muxu bat.



• Zorionak, **amama**, hilaren 27an zure eguna izango delako. Muxu handi birbiloba eta familiakoen partez.



• Zorionak, **Aitor,** zure 9. urtebetetzean. Mila muxu ama, aita, Natalia eta Nerearen partez.



• Zorionak, **Nora,** hilaren 23an bi urte egin zenituelako. Patxo asko etxekoen partez.



• Zorionak, **Julen,** bihar zortzi urte egingo dituzulako. Familiaren eta bereziki, Iker eta Asierren partez.



• Zorionak, **Ander** hilaren 30ean zazpi urte egingo dituzulako. Familia, Nerea eta osaba Jabiren parte.



• Zorionak, **Paula**, bi urte egin dituzulako. Patxito asko familia, eta bereziki Naroa eta Juneren partez



• Zorionak zure lehenengo urtebetetzean, **Manex**! Ondo pasa errobera eta bastoiekin jolasten.



• Zorionak, **Markel** zure bigarren urtebetetzean. Patxo handi bat familiakoen partetik.



• Zorionak, **Yeray eta Yaiza,** irailean urteak egin dituzuelako. Etxekoen partez muxu handi bana.



• Poza opa diegu ezkonberriei. Lagun guztion partez muxu bat biei. Etxekoen partez ere, ondo pasa!



• Zorionak, **bikote!** Koadrilakoek eta familiakoek oso ondo pasatuko dugu zuen ezkontza egunean.



• Zorionak, **bikote,** ezkondu zinetela 56 urte pasatu direlako. Ondo pasa! Familiakoen partez.



• Zorionak, eta muxu handi bana. Oso ondo pasa zuen urtebetetze egunean. Etxekoen partez.



• Zorionak, tio **Iñigo** eta aitatxo **Javier**. Ondo pasa eguna. Mikel eta Oihaneren partez.



• Zorionak, etxeko **bi printzesei!** Muxu potolo bana, eta ondo pasa!



• Zorionak, **laukote**, irailean urtebete egin duzuelako. Muxu handi bana ikastolako laguntxo guztien partez.

**OHARRA**

Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia eguazten eguerdia baino lehen ekarri behar duzu BARRENeko bulegora edo *barren@elgoibarkoizarra.com* e-postara bidali. Tel.: 943 74 41 12

**OKINDEGIA**

28 domeka EIZAGIRRE

**FARMAZIAK**

| | 24 ORDUZ |
|---|---|
| 26 | Yudego |
| 27 | Etxeberria *(Santa Ana)* |
| **28** | Etxeberria *(Santa Ana)* |
| 29 | Fernandez |
| 30 | Yudego |
| 1 | Zabaleta |
| 2 | Etxeberria *(Errosario)* |
| 3 | Ibañez |

Ibañez
Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 75 16 38

Fernandez
Herriko enparantza 4,
Garagarza (MENDARO)
Tel: 943 75 61 42

Zabaleta
Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 75 13 84

**INFORMAZIO GEHIAGO:**

Egin klik




*www.elgoiBARREN.net*

## aisialdia

### 26 barixakua

17:30 **Kiribilka programa**

Bitik sei urtera arteko haur eta euren gurasoentzako ekitaldia. Antolatzailea: Elgoibarko Izarra. Plaza Handian. Euria egiten badu Kultur Etxeko sotoan. Antolatzailea: Elgoibarko Izarra.

### 27 zapatua

09:00 **Hileroko feria**

Hilabeteko azken zapatuko feria. Barazki saltzaileak, ganadu erakusketa eta salmenta, eta herri kirolak izango dira. Antolatzaileak: Udala, Debemen eta Lagun Artea.

## antzerkia

### 3 barixakua

18:30 **Txotxongiloak**

Kiribilka egitasmoaren barruan, Ane Monna Oskola eta Karramarroi antzerki taldeak “Ino, Ino, Ino... Badator Bonbardino” txotxongilo ikuskizuna eskainiko du. Herriko Antzokian. Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

## lehiaketak

### 30 martitzena

**Gomendatzen dizut**

Oporretan joateko lekuen gomendioak egin behar dira. Edozeinek hartu dezake parte, eta nahi beste gomendio bidali daitezke. Gomendioak aurkezteko azken eguna irailaren 30a izango da. Informazio gehiago: 943 741 461 telefonoan edo *gib@elgoibar.org*

### 1 domeka

13:00 **Argazki lehiaketa**

2009ko Elgoibarko Udalaren egutegia egiteko argazki lehiaketa. Hamabi argazki aukeratuko dituzte eta irabazle bakoitzak 50 euro jasoko ditu. Informazio gehiago: *www.elgoibar.org*

## GAZTELEKUKO EKINTZAK

**BARIXAKUA 26**
Sukalde txokoa: patata tortila 17:00

**ZAPATUA 27**
Gazte zinema: “Nos miran” 18:00

**DOMEKA 28**
Billar indioa 18:30

**MARTITZENA 30**
Eskulanak: krokodilo erraldoia 17:00

**EGUAZTENA 1**
Txoko pribatua 17:00

**EGUENA 2**
Proposamen eta piropoen kutxa irekiera 17:00



## LUDOTEKAKO EKINTZAK

**BARIXAKUA 26**
Jolas librea 16:30

**ASTELEHENA 29**
Play Station pantaila erraldoian 17:00

**MARTITZENA 30**
Eskulanak 17:30

**EGUAZTENA 1**
Ludotekako futbolin liga 16:30

**EGUENA 2**
Mahai jolasak 17:00




**«Buda explotó por vergüenza»**
26, barixakua:
22:15

Zuzendaria: Hana Makhmalbaf.
Iraupena: 81 minutu. Aktoreak: Nikbakht Noruz (Baktay), Abdolali Hoseinali (chico talibán), Abbas Alijome (Abbas).
Talibanek suntsitu zuten Budaren estatuaren azpian milaka familia bizi dira. Baktay, sei urteko neskatila afganiarra, eskolara joan dadin konbentzituko du lagun batek. Eskolara bidean mutil batzuen jazarpena eta bortizkeria jasan beharko ditu neskatxak.

## SAN MIGEL JAIAK 2008

**26 BARIXAKUA**
GAZTEEN EGUNA
18:30 Kanpai jotzea, jaien hasiera adieraziz
21:30 Gazte afaria
00:00 Disko festa
Goizaldean, stripteasea

**27 ZAPATUA**
17:00 Ardi txakur txapelketa
Euskal Herriko arraza libreko finala
22:30 Haritz euskal dantza taldearen erakustaldia
Ondoren, erromeria
KUPELA taldearekin
1:00 Bolo txapelketa

**28 DOMEKA**
11:30 Meza
Ondoren, bertsolariak: UXUE ALBERDI eta MIKEL OLAIZOLA
12:00 San Migelera korrika igoera
Ondoren, trikitilariak: BALTZOLA ANAIAK
17:00 Idi demak

**29 ASTELEHENA**
SAN MIGEL EGUNA
11:30 Meza nagusia
Ondoren, bertsolariak: ZIARDA eta MAÑU
13:00 Pilota partidua
Ondoren, trikitilariak ELUSTONDO anaiak
20:30 Auzotarren afaria
Ondoren, erromeria ELUSTONDO anaiekin



LEKU ALDAKETA!
ZURE ALDE
ZA
ABOKATUAK
Komunitateen, ugazabeen aholkularitza.
Zuzenbide penala, zibila, laborala, familiarra.
Iñaki Gil Azpilicueta
Jausoro Plaza, 3 behea
Tel.: 943 531 351
Ignacio Vazquez Gonzalez
e-mail: zurealde@telefonica.net
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

## Zerikasi

### IKASTAROAK

**Yoga kastaroa**

Norentzat: adin guztietako jendearentzat
Hizkuntza: gazteleraz
Hasiera data: urriak 1
Non: Elgoibar eta Mendaro
Izena emateko: 943 74 85 93 edo 685 722 131 (Idoia)

**Altzariak zaharberritzeko ikastaroa**

Norentzat: interesa duen edonorentzat.
Hizkuntza: gazteleraz
Hasiera data: urriak 2
Non: Elgoibar
Izena emateko: 678 840 451 (Mertxe)/615 764 337 (Nieves)

**Marrazketa artistikoa**

Norentzat: Interesa duen edonorentzat
Hizkuntza: kontsultatzeko
Hasiera data: urriak 1
Non: Elgoibar
Izenemate bukaera: plazak bete arte

**Autodefentsa ikastaroa**

Norentzat: 15 urtetik gorako emakumeentzako
Hizkuntza: gazteleraz
Hasiera data: urriak 1
Non: Elgoibar
Izenematea: plaza mugatuak dira

**Gimnasia ritmikoa**

Norentzat: 16 urtetik beherakoentzat
Hizkuntza: euskaraz edo gazteleraz
Hasiera data: urriak 2
Non: Deba
Izenemate bukaera: kontsultatzeko

Informazio eta eskaintza zabalagoa:
*www.zerikasi.com edo 943 74 82 71*

ELENA
ileapaindegia
Depilazio Elektrikoa
San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89

Mandiola Egurrak S.L.
Domingo Arrizabalaga
SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA
Juan Mugerza, 3 ☎ 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83

txatxaran



*Informazio bila, gazte bat, Naiara Martin teknikariarekin.*

# GIG

## Gazte Informazio Gunea

**Egunero-egunero gazteentzako informazio mordoa jasotzen du Gazteen Informazio Guneak: diru-laguntzak, bekak, ikastaroak, bidaiak… Denetik pixkat. GIGk informazio hori zabaltzeko lanean dihardu eta gazteei Kultur Etxeko bulegora gerturatzeko deia egiten die. Azken batean, enteratu ez garelako, askotan hainbat aukera galtzen ditugu. Azken batean, "gazteria politikak gazteen artean ezagutaraztea eta parte hartzea bultzatzea" nahi du GIGk, Naiara Martin arduradunaren esanetan.**

# Informazioa, aukeran

### ESKURA DUZU BOLETIN ELEKTRONIKOA

Astero biltzen dugun informazioa posta elektronikoz jaso nahi duzu? Egin zaitez harpidedun. Helduko zaizun informazioa, Elgoibarren eta Gipuzkoan osoan dauden lan eskaintza, beka, diru laguntzak, ekintzak… izango da. *www.gipuzkoangazte.info* webgunean.

**Zure intereseko informazioa bakarrik jasotzean ahi baduzu, emaiguzu zure e-posta eta zuzenean bidaliko dizugu**

**INFORMAZIO GAIAK:**

- Bekak
- Lan eskaintzak
- Diru laguntzak
- Aisialdia
- Hezkuntza
- Kooperazioa
- Ikastaroak
- …

**ETA GEHIAGO!**

- Txartelen tramitazioa
- Bidaiateka
- Autokontsulta
- Hitzaldiak
- Biluizik Sexologia Zerbitzua

**ZERBITZUAREN FITXA:**

- Udal zerbitzu bat da
- Gazte Informatzailea: Naiara Martin
- Ordutegia: goizez: 11:00-13:00 (astelehen, asteazken eta barixakua) arratsaldero: 16:00-19:00
- Telefonoa: 943 74 14 61
- E-posta: *gib@elgoibar.org*
- Kudeatzailea: Elgoibarko Izarra

09
GIDA KOMERTZIALA
2009

Iazko gidan zure negozioko telefonoa agertu ez bazen,
deitu zenbaki honetara:
943 74 37 04
edo helbide honetara idatzi:
barren.publi@elgoibarkoizarra.com

# Gremioen GIDA

## Aroztegiak

**Asima**
Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

**Biena**
Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 31 16

**Garcia**
Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

**Imar**
Aroztegia
☎ 943 53 14 71
☎ 646 90 55 64
☎ 609 05 49 78

**Lodoso Leihoak**
Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabilioia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
www.fjlodoso.euskalnet.net

**Soraluze**
Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
☎ 943 74 36 34

**Ulazia**
Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47

## Indusketa lanak

**Lekunberri indusketak**
Indusketa eta indusketa txikiak
Lekunberri baserria
☎ 943 74 20 98/629 42 56 32
koldo@movistar.es
www.excavacioneslekunberri.com

## Lorezaintza

**Pagoa loradenda**
Nafarroa plaza 1
☎ 943 74 01 89
☎ 688 631 307

## Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

**Ibámar**
Ermuaran Bide, 11
☎ 943 53 18 47
☎ 647 463 436 (Floren)

**Javi**
Erretxindi, 1 behea
☎ 659 772 932

**Ongi**
Olaso Poligonoa, 15-68 pabiloia
☎ 943 74 28 80

**Pagoaga**
San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

**Pagoerrota**
Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

**Tellabide**
Azpilgoeta, 7 · MENDARO
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

**Santana Iturgintza eta instalazioak**
Urasandi, 17
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05
Faxa: 943 53 18 25

**Zubizarreta instalazioak**
Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44

## Pinturak

**Biok dekorazioa S.L.**
Santa Klara, 26 behea ezk.
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

**Ipintza**
Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40
☎ 607 74 04 40

**Ku Kolorea**
Urasandi kalea, 26 behea
☎ 943 74 88 43
☎ 660 52 25 87

## Proiektu eta erreformak

**Estudios Arrillaga**
Errosario, 15 behea (Elgoibar)
☎ 943 744 055/943 744 019
Arragueta, 12 behea (Eibar)
☎ 943 200 698

## Elektrizitatea

**Aramar**
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

**Azpeleta**
San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

**Joseba**
Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
MENDARO
☎ 659 934 964

**Urzelai**
Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76

## Igeltseritza

**Antonio Markez**
Urasandi, 24
☎ 943 74 34 18

**E. Arandia**
Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04

## Autoentzako tindatutako kristalak

**Glas Control S.L.**
Olaso 27, 47. pabiloia
☎ 943 74 30 94

# IKUSKIZUN ESZENIKOAK

## Urriak 10, ostirala

### "MALDITO PARNÉ"

- Glu-glu produkzioak
- Lekua: Elgoibarko Herriko Antzokia
- Ordua: 22:15ean
- Sarreren salmenta aurreratua
- Kultur Etxean 8'50 €
- Gazte txartelarekin 6 €



## Urriak 26, igandea

### "IRUDIMENDEKO HIRIA"

- 5-9 urte
- Gorakada taldea
- Lekua: Elgoibarko Herriko Antzokia
- Ordua: 16:30ean
- Sarrerak egunean bertan salduko dira leihatilan





# Musika



## YURI GAGARIN eta ANTONIO VEGA

### Urriak 17, ostirala

- Lekua: Elgoibarko Herriko Antzokia
- Ordua: 22:15ean
- Sarreren salmenta aurreratua
- Kultur Etxean 8'50 €
- Gazte txartelarekin 6 €

Kultura saila

Foru Aldundia

Eusko Jaurlaritza

SAREA